

ISEI·IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

Ikaskideen arteko tratu txarrak Euskadin. 2009ko ikerlana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

AURKIBIDEA

1.- Ikerlanaren ikusmoldea	3
2.- Ikerketaren ezaugarriak	7
3.- Emaitzak	13
• 3.1.- Emaiza orokorrak	15
• 3.2.- Lehen Hezkuntzako emaitzak	25
• 3.3.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako emaitzak.....	43
• 3.4.- Zuzendaritza taldeen erantzunen emaitzak.....	63
4.- Ondorio orokorrak	69

1.- Ikerlanaren ikusmoldea

1.1.-Ikaskideen arteko tratu txarren definizioa

Gai horri buruz askotariko ikerlanak egin badira ere, oraindik ez da aho batez onartu ikastetxeetako berdinen arteko tratu txarrak definitzen dituen terminorik. Horregatik ikerlan honetan *"ikaskideen arteko tratu txarrak"* terminoaren barruan egoera horiek izendatzeko erabili ohi diren beste termino batzuk sartuko dira, hala nola tratu txarrak, berdinen arteko abusua edo jazarpena, *bullyinga*, eskolako indarkeria eta abar.

Oro har, tratu txarrak honela definitu ohi dira: *"Pertsona baten edo gehiagoren jokaera negatiboa (kaltegarria) da, nekez defenda daitekeen beste pertsona baten kontra zuzendua, nahita egindakoa eta errepikatzen dena* (Olweus 2005).

Ikuspuntu horretatik, berdinen arteko tratu txarren ezaugarriak honako hauek dira:

- **Nahita egindako ekintzak dira; helburua min egitea da, beldurra, larrimina... eragitea.**
- **Erasotzailearen eta biktimaren arteko harreman asimetrikoa da: botere maila, errealala ala alegiazkoa, ezberdina dute.**
- **Denboran zehar behin eta berriro errepikatzen dira. Sarritan gertatzen dira.**

1.2.-Tratu txar motak

Ikastetxeen inguruneko tratu txarren ezaugarriak hobeto ulertzeko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako galdera sortan ageri diren 15 jokaerak sei multzotan bildu dira, tratu txar mota ezberdinen arabera. Lehen Hezkuntzako ikasleentzako galdera sortan ageri diren 13 jokaerak tratu txar mota ezberdinei dagozkien bost multzotan bildu dira, honako taula honetan adierazten den bezala:

Tratu txar motak 2008-09	Lehen Hezkuntza	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
Ahozko tratu txarrak	<ul style="list-style-type: none"> • Iraintzen naute • Izengoitiak jartzen dizkirate • Niri buruz txarto hitz egiten dute 	<ul style="list-style-type: none"> • Iraintzen naute • Izengoitiak jartzen dizkirate • Niri buruz txarto hitz egiten dute
Gizarte-baztertea	<ul style="list-style-type: none"> • Ez didate kasurik egiten (paso egiten dute) • Ez didate parte hartzen uzten 	<ul style="list-style-type: none"> • Ez didate kasurik egiten (paso egiten dute) • Ez didate parte hartzen uzten
Gauzei erasotzea	<ul style="list-style-type: none"> • Gauzak ezkututzen dizkirate • Me rompen cosas • Gauzak lapurtzen dizkirate 	<ul style="list-style-type: none"> • Gauzak ezkututzen dizkirate • Gauzak apurtzen dizkirate • Gauzak lapurtzen dizkirate
Tratu txar fisikoak	<ul style="list-style-type: none"> • Jotzen naute • Egin nahi ez ditudan gauzak egitera behartzen naute • Makilekin mehatxatzen naute • Beldurtze hutsagatik mehatxatzen naute 	<ul style="list-style-type: none"> • Jotzen naute • Egin nahi ez ditudan gauzak egitera behartzen naute • Makilekin mehatxatzen naute • Beldurtze hutsagatik mehatxatzen naute
Cyberbullying	<ul style="list-style-type: none"> • Telefono mugikorraz, posta elektronokoz edo txatez mezuak bidaltzen dizkirate mehatxatzeko, beldurtzeko edo nitaz parre egiteko. 	<ul style="list-style-type: none"> • Telefono mugikorraz, posta elektronokoz edo txatez mezuak bidaltzen dizkirate mehatxatzeko, beldurtzeko edo nitaz parre egiteko. • Telefono mugikorraz egoera laidogarrietan grabatzen naute, gero beste kide batzuei pasatzeko edo Interneten eskegitzeko
Sexu jazarpena		<ul style="list-style-type: none"> • Sexualki jazartzen didate

1.3.- Nola kalkulatu da tratu txarren adierazle orokorra?

Tratu txarren adierazle orokorraren balioa tratu txarretako **12 jokoerretako bat gutxienez “sarritan”** edo **“beti”** jasan dutela dioten ikasleak kontuan harturik kalkulatu da. Jarraian zehazten diren 12 jokoera horiek **komunak dira Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan 2005eko, 2008ko eta 2009ko ikerlanetan**, informazioa konparatzea bermatu ahal izateko.

Iraintzen naute
Izengoitiak jartzen dizkirate
Niri buruz txarto hitz egiten dute

Gauzak ezkututzen dizkirate
Gauzak apurtzen dizkirate
Gauzak lapurtzen dizkirate

Ez didate kasurik egiten
Ez didate parte hartzen uzten

Jotzen naute
Egin nahi ez ditudan gauzak egitera behartzen naute
Makilekin mehatxatzen naute
Beldurtze hutsagatik mehatxatzen naute

1.4.- Adierazlearen kalkulua tratu txar motaren arabera

Adierazlearen balioa tratu txar motaren arabera kalkulatzeko hurrengo multzo hauetako jokaera bat gutxienez "sarritan" edo "beti" sufritu dutela dioten ikasleak kontuan hartu dira:

- **Ahozko tratu txarrak:**
 - Iraintzen naute.
 - Izengoitiak jartzen dizkirate.
 - Niri buruz txarto hitz egiten dute.
- **Biktimaren gizarte-baztertzea:**
 - Ez didate kasurik egiten (paso egiten dute).
 - Ez didate parte hartzen uzten.
- **Tratu txar fisikoak:**
 - Jotzen naute.
 - Egin nahi ez ditudan gauzak egitera behartzen naute.
 - Makilekin mehatxatzen naute.
 - Beldurtze hutsagatik mehatxatzen naute.
- **Biktimaren gauzei erasotzea:**
 - Gauzak ezkututzen dizkirate.
 - Gauzak apurtzen dizkirate.
 - Gauzak lapurtzen dizkirate.
- **Ciberbullying:**
 - Telefono mugikorraz, posta elektronikoz edo txatez mezuak bidaltzen dizkirate mehatxatzeko, beldurtzeko edo nitaz barre egiteko.
 - Telefono mugikorraz egoera laidogarrietan grabatzen naute, gero beste kide batzuei pasatzeko edo Interneten eskegitzeko (sólo en ESO).
- **Sexu jazarpena (DBHn bakarrik):**
 - Sexualki jazartzen didate.

2.- Ikerketaren ezaugarriak

Ikaskideen arteko tratu txarrei buruzko lehen ikerketa 2004-05 ikasturtean egin zen. Bi galdera sorta banatu ziren: bata ikasleentzako (Herritarren Defendatzailearen ikerlanerako eskolako indarkeriari buruz prestatutako galdera sorta (Madril, 1999), baina Kontrol Zerrendarekin -Arora, 1989- osatua); eta bestea ikastetxeko zuzendaritza taldearentzako.

2007-08 ikasturtetik aurrera, Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari 2007ko martxoaren 2an hala eskaturik, bigarren eta hirugarren ikerlanak gauzatu dira. Ikaskideen arteko tratu txarren bilakaera neurtu ahal izateko, lehen ikerlaneko baldintzak ia berdin mantendu dira.

2009ko ikerlanean, aurrekoetan bezala, zuzendaritza taldeentzako galdera sortak eta ikasleentzakoak webaren bidez gauzatu dira. Aipatu beharrekoa da ikastetxeek eta ikasleek emandako laguntza, galdera sortak informatika programa baten bidez inolako arazorik gabe bete baitituzte.

ISEI-IVEItik aplikazioaren kontrola *“in situ”* egin da Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 163 ikastetxeen % 5ean.

Ikasleentzako galdera sortak honako ezaugarri hauek zituen:

- Ikasle guztiek galdera guztiei erantzun behar izan diete.
- Ikasleari galderatik kanpo geratzeko aukera galdera guztietan eman zaio honelako erantzunen bidez: *“ez dut inoiz ikusi”*, *ez dut inor zirikatzen*, *“ez zait inoiz gertatzen”*, *“ez dakit zer egiten duten”* eta abar.
- Galderak hiru ikuspuntu ezberdinetatik egin dira: lekukoaren ikuspuntutik, biktimaren ikuspuntutik eta erasotzailearen ikuspuntutik. Ikerketan parte hartu duten ikasleak lekukoaren, biktimaren edo erasotzailearen lekuan jarri dira galdera sortan aurkeztu zaizkien jokaeren aurrean.
- Jokaerak aztertzeaz gain, horiek non gertatzen diren ere aztertu da, beste zenbait alderdirekin batera, hala nola biktimen erreakzioa, inguruko jendearen erreakzioa eta abar.
- Galdera sortak hiru mota ezberdinetako galderak zituen:
 - Erantzuna mailakatzea eskatzen duten galderak: *“inoiz ere ez”*, *“batzuetan”*, *“sarritan”* eta *“beti”*.
 - Erantzun bakarra hautatzea eskatzen duten galderak.
 - Erantzun bat edo batzuk hautatzeko aukera ematen duten galderak.

Txosten honetako grafikoak honako ohar argigarriekin aurkezten dira:

- *“Sarritan” eta “beti” aukeretako ehuneko metatua: “inoiz ere ez”, “batzuetan”, “sarritan” eta “beti” aukeretako galderei dagozkien grafikoetan ageri ohi da. galdeari erantzun dioten ikasle guztien artean, grafikoak “sarritan” hautatu duten ikasleen eta “beti” hautatu dutenen ehunekoa adierazten du.*
- *Ikasle guztiak kontuan izanik: ehunekoak kasu horretan lagineko ikasle guztien erantzunak kontuan izanik kalkulatu dira.*
 - Galderak ikaslearengandik erantzun bakar bat eskatzen duenean, grafikoetan ageri diren ehunekoan batura % 100 da, adibidez honelako galderetan: *“Beldurra arrazoi askorengatik sentitu daiteke. Ikastetxera etortzeko beldurrik izan duzu inoiz ikasturte*

honetan? Zuk pentsatzen duzunera gehien hurbiltzen den aukeran klik egin". (Ikus 23. grafikoa)

- Galderak erantzun bat baino gehiagorako aukera ematen duenean, grafikoetan ageri diren ehunekoen batura % 100 baino gehiago da, adibidez honelako galderetan: *Zein da irakasleekiko horrela sentitzeko arrazoi nagusia? Zuk pentsatzen duzunera gehien hurbiltzen den aukeran klik egin". (Ikus 26. grafikoa)*

Laginen ezaugarriak etapa bakoitzaren ataletan azaltzen dira (Ikus 3.2 atala, Lehen Hezkuntzako emaitzak, eta 3.3. atala, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako emaitzak).

3.- Emaitzak

3.1.- Eraitza orokorrak: Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.

3.1.1.-Tratu txarren adierazle orokorraren bilakaera

Tratu txarren adierazle orokorra

Hurrengo 12 tratu txarretako joeretako bat gutxienez "sarritan" eta "beti" jasan duten ikasleen ehuneko adierazten du.

Iraintzen naute
Izengoitiak jartzen dizkirate
Niri buruz txarto hitz egiten dute


Gauzak ezkututzen dizkirate
Gauzak apurtzen dizkirate
Gauzak lapurtzen dizkirate

Ez didate kasurik egiten
Ez didate parte hartzen uzten

Jotzen naute
Egin nahi ez ditudan gauzak egitera behartzen naute
Makilekin mehatxatzen naute
Beldurtze hutsagatik mehatxatzen naute

Tratu txarrak jasan dituztela dioten ikasleen ehunekoaren bilakaera berdintsua izan da Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. 2008an jaitsi egin zen 2005eko ikerlanarekiko, baina 2009an igo egin da (1,3 puntuz Lehen Hezkuntzan eta 1,0 puntuz Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan 2005eko mailara itzuli da ia.

1. grafikoa: Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Tratu txarren biktimak etaparen eta urtearen arabera*




Ikasleen sexuaren aldetiko analisiari dagokionez, 2009an tratu txarretako 12 jokaerretako bat gutxienez *“sarritan”* edota *“beti”* jasan dutela dioten mutilen ehunekoak neskena baino handiagoa da Lehen Hezkuntzan, baina Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ehunekoak ia berdinak dira lehenengoz. Nesken eta mutilen arteko aldea 3,6 puntukoa da Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan sexu bakoitzaren ehunekoak hurbil daudelarik (mutilen % 11,4 eta nesken % 11,8).

Datuak 2005ekoekin eta 2008koekin erkatzen baditugu, Lehen Hezkuntzan mutilen eta nesken arteko aldea antzerakoa da, baina Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan mutilen eta nesken arteko aldeak murrizten jarraitu du, 2005ean 3 puntukoa izatetik 2008an 1,4 puntukoa eta 2009an 0,4 puntukoa izatera pasa baita.


2. grafikoan ikus daitekeen bezala, gorabeherak sexuaren, etaparen eta urtearen arabera antzerako aldea mantendu dute, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan izan ezik, etapa horretan aldeak hurbiltzen joan baitira.

2. grafikoa: Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Tratu txarren biktimak sexuaren, etaparen eta urtearen arabera*



Tratu txarren adierazle orokorraren bilakaerari dagokionez, ehunekoak, dirudienez, igo egin dira aurreko ikerlanekiko (2005 eta 2008) Lehen Hezkuntzako 5. mailan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 3. mailetan. Lehen Hezkuntzako 6. mailan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan, berriz, apur bat jaitsi dira.

3. grafikoa: Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Tratu txarren adierazle orokorraren bilakaera irakasmilaren eta urtearen arabera*



Datuek irakasmiletan zehar (Lehen Hezkuntzako 5. mailatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailara) jaitsiera txiki bat erakusten duten arren, benetako jauzia Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailen artean eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken irakasmilan gertatzen da, irakasmila horietako ikasleek tratu txar gutxiago jasan dutela esan baitute.

2005ean Lehen Hezkuntzako 5. mailako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako ehunekoaren arteko aldea 10 puntukoa zen, 2008an 8 puntukoa eta 2009an 11,3 puntukoa.

3.1.2.-Tratu txar moten analisia

Adierazlearen balioa tratu txar motaren arabera kalkulatzeko hurrengo multzo hauetako jokaera gutxienez “sarritan” eta “beti” jasan dutela dioten ikasleak kontuan hartu dira.

Arestian aipatu den bezala, Lehen Hezkuntzan bost mota ezberdinetako tratu txarrak hartu dira kontuan. Hurrengo taulan bost multzotan bildurik aurkezten dira.

Tratu txar motak Lehen hezkuntzan	2008ko eta 2009ko ikerlanetan lotutako jokaerak	2005eko ikerlanean lotutako jokaerak
Ahozko tratu txarrak	<ul style="list-style-type: none"> • Iraintzen naute • Izengoitiak jartzen dizkirate • Niri buruz txarto hitz egiten dute 	<ul style="list-style-type: none"> • Iraintzen naute • Izengoitiak jartzen dizkirate • Niri buruz txarto hitz egiten dute
Gizarte-baztertea	<ul style="list-style-type: none"> • Ez didate kasurik egiten (paso egiten dute) • Ez didate parte hartzen uzten 	<ul style="list-style-type: none"> • Ez didate kasurik egiten (paso egiten dute) • Ez didate parte hartzen uzten
Gauzei erasotzea	<ul style="list-style-type: none"> • Gauzak ezkututzen dizkirate • Gauzak apurtzen dizkirate • Gauzak lapurtzen dizkirate 	<ul style="list-style-type: none"> • Gauzak ezkututzen dizkirate • Gauzak apurtzen dizkirate • Gauzak lapurtzen dizkirate
Tratu txar fisikoak	<ul style="list-style-type: none"> • Jotzen naute • Egin nahi ez ditudan gauzak egitera behartzen naute • Makilekin mehatxatzen naute • Beldurtze hutsagatik mehatxatzen naute 	<ul style="list-style-type: none"> • Jotzen naute • Egin nahi ez ditudan gauzak egitera behartzen naute • Makilekin mehatxatzen naute • Beldurtze hutsagatik mehatxatzen naute
Cyberbullying	<ul style="list-style-type: none"> • Telefono mugikorraz, posta elektronikoz edo txatez mezuak bidaltzen dizkirate mehatxatzeko, beldurtzeko edo nitaz parre egiteko. 	

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan sei motatako tratu txarrak izan dira kontuan:

Tratu txar motak DBH	2008ko eta 2009ko ikerlanetan lotutako jokaerak	2005eko ikerlanean lotutako jokaerak
Ahozko tratu txarrak	<ul style="list-style-type: none"> • Iraintzen naute • Izengoitiak jartzen dizkirate • Niri buruz txarto hitz egiten dute 	<ul style="list-style-type: none"> • Iraintzen naute • Izengoitiak jartzen dizkirate • Niri buruz txarto hitz egiten dute
Gizarte-baztertea	<ul style="list-style-type: none"> • Ez didate kasurik egiten (paso egiten dute) • Ez didate parte hartzen uzten 	<ul style="list-style-type: none"> • Ez didate kasurik egiten (paso egiten dute) • Ez didate parte hartzen uzten
Gauzei erasotzea	<ul style="list-style-type: none"> • Gauzak ezkututzen dizkirate • Gauzak apurtzen dizkirate • Gauzak lapurtzen dizkirate 	<ul style="list-style-type: none"> • Gauzak ezkututzen dizkirate • Gauzak apurtzen dizkirate • Gauzak lapurtzen dizkirate
Tratu txar fisikoak	<ul style="list-style-type: none"> • Jotzen naute • Egin nahi ez ditudan gauzak egitera behartzen naute • Makilekin mehatxatzen naute • Beldurtze hutsagatik mehatxatzen naute 	<ul style="list-style-type: none"> • Jotzen naute • Egin nahi ez ditudan gauzak egitera behartzen naute • Makilekin mehatxatzen naute • Beldurtze hutsagatik mehatxatzen naute
Cyberbullying	<ul style="list-style-type: none"> • Telefono mugikorraz, posta elektronikoz edo txatez mezuak bidaltzen dizkirate mehatxatzeko, beldurtzeko, e.a.. • Telefono mugikorraz egoera laidogarrietan grabatzen naute, gero beste kide batzuei pasatzeko edo Interneten eskegitzeko 	
Sexu jazarpina	<ul style="list-style-type: none"> • Sexualki jazartzen didate 	<ul style="list-style-type: none"> • Sexualki jazartzen didate


Tratu txar moten bilakaera

Emaitzak etapaka aztertzen baditugu¹, 2009an ikertutako mota guztietako tratu txarretan ikasleen ehunekoak Lehen Hezkuntzan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan baino handiagoak direla ikusten da, 2008ko *ciberbullyingaren* kasuan izan ezik. Horrekin batera, Lehen Hezkuntzan tratu txar fisikoei dagozkien jokoerak areagotu egin direla ikus daiteke, eta baita ahozko tratu txarrei, gizarte-baztertzeari eta gauzei erasotzeari dagozkienak ere areagotu egin direla bi etapetan. Hala ere, ez dira heltzen 2005eko ehunekoen mailara, “*gizarte-baztertzea*” jokoeraren kasuan izan ezik, aurreko bi ikerlanekiko puntu batez igo baita.

Mota guztietako tratu txarrak bi etapetan eta hiru ikerlanetan aztertu ondoren, ahozko tratu txarrak nagusi direla ikusten da.


Gutxienetan gertatzen diren jokoerak sexu jazarpena eta *ciberbullyinga* dira. Sexu jazarpena Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan bakarrik aztertu da, eta ikasleen % 1 inguruk esan du horren biktimak dela, aurreko ikasturtean izan zen antzeko ehunekoa. *Ciberbullyinga* 2008an aztertu zen lehenengoz, eta ikasleen % 1ek baino gutxiagok esan du tratu txar hori jasaten duela. Ehunekoa ia bera da Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, eta balioak anterakoak dira bi ikerlanetan.

4.1 grafikoa: Lehen Hezkuntza
Tratu txar moten bilakaera* (2205-2008-2009)**



¹ Sexu jazarpenari dagozkion jokoeretan DBHko datuak bakarrik bildu dira, LHko ikasleen adina kontuan izanik tratu txar mota hori etapa horretan aztertzea ez baita bidezkoa iritzi. “*Ciberbullyingari*” dagozkion jokoeretan datuak 2005.ko urtean ez dira ageri, tratu txar mota hori berria sartu zen 2008.ko ikerlanean.


4.2 grafikoa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Tratu txar moten bilakaera* (2205-2008-2009)**



Ahozko tratu txarrak

Ahozko tratu txarrak dira erasorik sarrienak bai Lehen Hezkuntzan bai Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, eta nesken artean eta mutilen artean gertatzen dira. Horrez gain, erasorik sarriena izan da egindako hiru ikerlanetan. 2008ko ikerlanarekiko ez da aldaketa adierazgarririk izan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailan izan ezik, irakasmaila horretan jaitsiera bat izan baita.


5. grafikoa: Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Ahozko tratu txarren bilakaera irakasmailaren eta ikerlanaren urtearen arabera



2009an tratu txar hori Lehen Hezkuntzan nabarmenki handiagoa (4 puntu) izan da mutilen artean nesken artean baino, eta alde hori handitu egin da aurreko ikerlanekiko.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, berriz, lehenengoz gertatu da tratu txar hori apur bat handiagoa izatea nesken artean mutilen artean baino.


6. grafikoa: Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Ahozko tratu txarrak sexuaren, etaparen eta ikerlanaren urtearen arabera




Gizarte-baztertzea

Gizarte-baztertzea ia berdin jasaten dute neskek eta mutilek. Lehen Hezkuntzako 5. mailan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 3. mailetan areagotu egin da 2008ko ikerlanarekiko.

7. grafikoa: Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Gizarte-baztertzea irakasmilaren eta ikerlanaren urtearen arabera




8. grafikoa: Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Gizarte-baztertzea sexuaren, etaparen eta ikerlanaren urtearen arabera



Tratu txar fisikoak

Tratu txar fisikoak 2009ko ikerlanean nabarmenki handiagoak dira mutilen artean nesken artean baino Lehen Hezkuntzan, baina ez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Irakasmilen artean ez da aldaketa handirik nabaritzen aurreko ikerlanekiko.


9. grafikoa: Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Tratu txar fisikoak irakasmilaren eta ikerlanaren urtearen arabera



Sexuaren aldetiko konparazioan denbora tarte horretan kasu guztietan neskek mutilek baino tratu txar fisiko gutxiago jasan dutela ikus daiteke. Mutilei dagozkien ehunekoek beheranzko joera izan dute Lehen Hezkuntzan, eta egonkor mantendu dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, baina maila nabarmenki apalagoetan.

Mutilek, berriz, tratu txar fisiko gehiago jasaten dute Lehen Hezkuntzan, 2009an aurreko urteko ikerlanarekiko gorakada handi samarra gertatu delarik. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan 2005etik 2009ra jaitsiera ez da iraunkorra izan.


10. grafikoa: Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Tratu txar fisikoak sexuaren, etaparen eta ikerlanaren urtearen arabera




Gauzei erasotzea

Gauzei erasotzea tratu txarrari dagokion ehunekoa berdintsua da sexuaren aldetik baita ikerlanaren urtearen aldetik ere, izandako aldeak ez baitira estatistikoki adierazgarriak. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailan 1,4 puntuko igoera izan da 2008ko ikerlanarekiko.

11. grafikoa: Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Gauzei erasotzea irakasmilaren eta ikerlanaren urtearen arabera




12. grafikoa: Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Gauzei erasotzea sexuaren, etaparen eta ikerlanaren urtearen arabera



Ciberbullying


Ciberbullyinga jasaten dutela dioten ikasleen ehunekoak % 1 baino txikiagoak dira irakasmaila guztietan, Lehen Hezkuntzako 5. mailan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailan izan ezik, irakasmaila horietako ehunekoak % 1 ingurukoak baita. Ez dago alde adierazgarririk nesken eta mutilen artean.

13. grafikoa: Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza *Ciberbullyinga* irakasmailaren eta ikerlanaren urtearen arabera*



*2005eko ikerlanean ez zen bildu aldagai horri buruzko informaziorik.

14. grafikoa: Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Ciberbullyinga sexuaren, etaparen eta ikerlanaren urtearen arabera*



*2005eko ikerlanean ez zen bildu aldagai horri buruzko informaziorik.

3.2.- Lehen Hezkuntzako emaitzak

3.2.- Ikaskideen arteko tratu txarrak Lehen Hezkuntzan

3.2.1.- Inkestaren lagina

- Ikasleak: 3.104
- Ikastetxeak: 83
- Aplikazioa: 2009ko otsaila

Irakasmila	Ikasleak	%
LH 5	1.555	49,9
LH 6	1.559	50,1
GUZTIRA	3.114	100

- Lagina EUSTATEk egin du konglomeratuen arabera (ikastetxeak)
- Ikasle kopurua ikastetxeko 10 izan da gutxienez eta 40 gehienez.
- Lagin akatsa 0,04 da.
- Ikastetxe bakoitzeko 40 ikasleak (5. mailako 20 eta 6. mailako beste 20) zoriz hautatu dira informatika programa baten bidez.
- Inkestaren konplexutasunaren ondorioz, aplikazioa Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetan bakarrik egin zen.

3.2.2.- Tratu txarrak lekukoen, biktimen eta erasotzaileen ikuspuntutatik

Jarraian ikastetxeetan Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko (5. eta 6. mailetako) ikasleen artean ikasturtearen hasieratik behin eta berriro gertatzen diren tratu txarretako jokoerak aztertzen dira.


Tratu txarrak lekukoen ikuspuntutik

Aurreko ikerlanetan bezala (2005 eta 2008), lekukoen esanetan ikaskideen artean sarrien gertatzen diren jokoerak ahozko tratu txarrei dagozkienak dira. Ikasleen % 20k baino apur bat gehiagok esaten du ahozko tratu txarretako jokoerak ikusten dituela: “iraintzea” (% 23,3), “berari buruz txarto hitz egitea” (% 22,8) eta “izengoitiak jartzea” (% 19,9).

Gizarte-baztertzeari dagozkion jokoerak –“kasurik ez egitea (paso egitea)” eta “parte hartzen ez uztea”– lekukoen % 10ek baino apur bat gehiagok ikusten ditu.

Gizarte-baztertzeari dagozkion jokoerak –“kasurik ez egitea (paso egitea)” eta “parte hartzen ez uztea”– lekukoen % 10ek baino apur bat gehiagok ikusten ditu.


15. grafikoa: Lehen Hezkuntza 2009
Tratu txarretako jokoerak LEKUKOen ikuspuntutik*



Ikasleek beren ikaskideek ikastetxean jasaten dituzten tratu txarrei buruz duten pertzepzioa antzeman daiteke bilakaeran. Oro har 2008ko ehunekoen inguruan mantendu dira, “kasurik ez egitea (paso egitea)” eta “parte hartzen ez uztea” jokoaren kasuetan izan ezik, kasu horietan apur bat altuagoak baitira.

Lekuko esanetan, *ciberbullyinga* hasi berria da ikastetxeetan, eta bere maiztasuna txikia da (% 1,5), 2008koaren antzerakoa.


16. grafikoa: Lehen Hezkuntza. 2005-2008-2009.
Tratu txarren bilakaera LEKUKOen ikuspuntutik*



Tratu txarrak biktimen ikuspuntutik

Biktimen esanetan, gehienetan jasaten dituzten tratu txarrak ahozko tratu txarrak dira, eta bigarren lekuan gizarte-baztertzea. Gauzei erasotzea eta tratu txar fisikoak ere gertatzen direla aipatzen dute, baina askoz maiztasun apalagoarekin.


17. grafikoa: Lehen Hezkuntza 2009. BIKTIMEK jasandako tratu txarretako jokaerak*



Aurreko bi ikerlanak konparatzen badira, biktimek beren esanetan jasaten dituzten jokaeren ehunekoa 2009an 2008an baino apur bat handiagoa dela ikus daiteke, "iraintzen naute", "gauzak lapurtzen dizkirate" eta "armekin mehatxatzen naute" jokaeren kasuetan izan ezik. "Jotzen naute", "ez didate kasurik egiten (paso egiten dute)" eta "armekin mehatxatzen naute" jokaeren kasuetan bakarrik gertatzen dira alde adierazgarriak, azken jokaera horretako balioak oso txikiak diren arren. Gizarte-baztertzeari dagozkion jokaeren kasuetan igoera bat izan da aurreko bi ikerlanekiko.

18. grafikoa: Lehen Hezkuntza. 2005-2008-2009.

Tratu txarren bilakaera BIKTIMEN ikuspuntutik*




Tratu txarrak erasotzailearen ikuspuntutik

Tratu txarrak ematen dituzten ikasleen pertzepzioaren arabera, gizarte-baztertzea da tratu txarrik sarriena, eta bigarren lekuan ahozko tratu txarrak daude. Gauzei erasotzea, tratu txar fisikoak eta *ciberbullyinga* maiztasun apalagoarekin gertatzen dira.

Kontuan hartzeko modukoa da ikasle erasotzaileen ikuspuntutik "ez diot kasurik egiten (paso egiten dut)" jokaerak ehunekorik altuena izatea.


19. grafikoa: Lehen Hezkuntza 2009.
Tratu txarretako jokaerak ERASOTZAILAEn ikuspuntutik*



Erasotzaileek gehien aitortzen dituzten jokaerak “ez diot kasurik egiten (paso egiten dut)” eta “berari buruz txarto hitz egiten dut” dira. Jokaera horietako lehenari dagokion ehunekoa, erasotzaileen esanetan sarrien izaten dutena izan arren, mantendu egin da 2008ko ikerlanarekiko; hala ere, 2005ekoan baino nabarmenki handiagoa da.

Gainontzeko jokaerei dagozkien ehunekoak 2008koen antzerakoak dira, “jotzen dut” jokaeraren kasuan izan ezik, aurreko bi ikerlanekiko nabarmenki jaitsi baita.

20. grafikoa: Lehen Hezkuntza. 2005-2008-2009.
Tratu txarren bilakaera ERASOTZAILÉen ikuspuntutik*




21. grafikoa ikus daitekeen bezala, tratu txarretako egoeren lekuko izan diren ikasleen ehunekoa handiena da ia jokaera guztietan, tratu txarretako egoera bat pertsona askok batera ikus dezaketelako. Tratu txarren biktimek eta erasotzaileek antzeko pertzepzioa izaten dute egoera horietan. Hala ere, "jotzea" jokaera maiztasun handikoa da lekuko esanetan, baina maiztasun txikiagokoa biktimen esanetan. Ikasle erasotzaileen ehuneko apur bat txikiagoak aitortzen du "izengoitiak jartzea", "berari buruz txarto hitz egitea", "iraintzea" eta "gauzak ezkutatzea" jokaerak izaten dituela.

Biktimei eta erasotzaileei dagozkien balioak antzerakoak dira edo apur bat handiagoak biktimen kasuan, "kasurik ez egitea (paso egitea)" jokaeraren kasuan izan ezik, jokaera horretan bi balioak berdinak baitira.

21. grafikoa: Lehen Hezkuntza 2009.

Tratu txarrak lekukoan, biktimen eta erasotzaileen ikuspuntuetatik*




Lekukoan, biktimen eta ikasle erasotzaileen iritziz, jokaera horien bilakaera 2008ko ikerlanarekiko oso antzekoa izan da kasu guztietan. Jokaerek 2005eko ikerlanarekiko dituzten aldeak erkatzen baditugu, jaitsiera nabarmena ikus daiteke lekukoan ikuspuntuaren kasuan. Alde hori 2008ko ikerlanean ere hauteman zen.

Ikasle erasotzaileek esaten dute "jotzea" jokaera 2008an baino maiztasun txikiagoarekin izaten dutela. Hala ere, biktimen ikuspuntutik "jotzen naute" eta "ez didate kasurik egiten (paso egiten dute)" jokaeren maiztasuna handitu egin da aurreko ikasturtearekiko.

22. grafikoa: Lehen Hezkuntza 2005-2008-2009.

Tratu txarren bilakaera lekukoan, biktimen eta erasotzaileen ikuspuntuetatik*




3.2.3.-Lehen Hezkuntzan tratu txarrak ematen dituzten ikasleen jatorria eta sexua eta tratu txarrak non gertatzen diren biktimen esanetan

Behean aurkezten diren hiru tauletan ez da 2005eko daturik ageri, ikasleei atal honetan egin zitzaizkien galderak eta 2008an eta 2009an egin zitzaizkienak ez baitatoz bat. Datu horiek, beraz, ez dira estatistikoki konparagarriak.

Biktimek, beren esanetan, ikaskideengandik jasan dituzten tratu txarretako jokaeren kopurua adierazten dute ehunekoek, ikaskide horien irakasmilla eta sexua, eta tratu txarrak non gertatzen diren kontuan izanik. Ehuneko horietan ez dira sartu horrelako jokaerarik jasan ez dutela dioten ikasleak.

a) Nongoak dira tratu txarren emaleak? (tratu txarretako jokaerak biktimen esanetan).

	Jokaeren %	
	2008	2009
Nire taldekoak	43,5	42,6
Nire irakasmillakoak, baina ez nire taldekoak	15,7	23,5
Goragoko irakasmilla batekoak	17,9	15,7
Ikastetxetik kanpoko pertsonak	14,9	11,5
Beheragoko irakasmilla batekoak	7,9	6,7




OHARRA: Galderen formulazio ezberdina dela eta, datuak ezin dira zuzenki konparatu 2005ekoekin.

Biktimen esanetan, tratu txarretako jokaeren % 42,6 taldekideek eragiten dituzte. Gainerako jokaerak goragoko irakasmaila bateko ikasleek eragiten dituzte (% 15,7), irakasmaila bereko beste talde batekoek (% 23,5), ikastetxetik kanpoko pertsonak (% 11,5) eta hein txikiagoan beheragoko irakasmaila bateko ikasleek (% 6,7). Emaitza horiek eta 2005ekoak eta 2008koa oso antzekoak dira, urte haietan ere tratu txarretako jokaeren ehunekorik handiena biktimaren taldeko ikaskideek eragin baituzten. Tratu txarrak irakasmaila bereko beste talde bateko ikaskideengandik jasaten dituztela dioten ikasleen ehunekoa, berriz, handitu egin da 2008ko ikerlanarekiko.

b) Non gertatzen dira tratu txarrak? (tratu txarretako jokaerak biktimen esanetan)

	Jokaeren %	
	2008	2009
Jolastokian	36,7	32,6
Ikasgelan	16,5	16,6
Edozein lekutan	14,5	14,4
Jantokian	10,0	12,4
Ikastetxeko ikasleek, ikastetxetik kanpo	12,3	12,0
Korridorean	5,7	6,8
Komunetan	4,2	5,3




OHARRA: Galderen formulazio ezberdina dela eta, datuak ezin dira zuzenki konparatu 2005ekoekin.

Biktimen esanetan, tratu txarretako jokaera gehien “jolastokian” jasaten dituzte, eta askoz ehuneko txikiagoan “ikasgelan”. 2005eko eta 2008ko ikerlanetan bezala, tratu txarretako jokaerarik gehien, alde handiarekin, jolastokian gertatzen dira. Deigarri gertatzen da Lehen Hezkuntzako biktimek ikaskideengandik jasaten dituzten tratu txarren % 12 ikastetxetik kanpo gertatzen direla esatea.

c) Nortzuk dira tratu txarren emaileak? (tratu txarretako jokaerak biktimen esanetan)

2005ean eta 2008an bezala, biktimen esanetan tratu txarretako jokaeren ia erdia eragiten dutenak “*mutil batzuk*” dira. Hein nahiko apalago batean “*mutil bat*” eta “*neskak eta mutilak*” izaten dira.

	Jokaeren %	
	2008	2009
Mutil batzuk	39,5	38,1
Mutil bat	23,2	22,7
Neskak eta mutilak	14,8	15,6
Neska batzuk	11,7	11,8
Neska bat	10,7	11,8



OHARRA: Galderen formulazio ezberdina dela eta, datuak ezin dira zuzenki konparatu 2005ekoekin.

3.2.4.- Biktima eta eskola ingurunea

Atal honetan aurkezten diren datuak honako honi buruzkoak dira: ikasleak ikastetxeak nola tratatuta sentitzen diren eta zergatik, irakasleekin nolako harremana duten, tratu txarrak jasaten dituztenean norekin hitz egiten duten, eta kasu horietan nork esku hartzen duen eta nola.


24., 26., 27. eta 28. grafikoetan aurkezten diren ehunekoen batura 100 baino gehiago da, ikasleek galdera horietan erantzun bat baino gehiago hautatu ahal izan dutelako.

a) Ikastetxera joateko beldurra

Ikasleei ikasturtean zehar inoiz ikastetxera joateko beldurrik sentitu duten galdetu zaienean, 2009an % 66,4k ezetz erantzun du, ez duela inoiz ikastetxera joateko beldurrik sentitu. 2005eko ikerlanean ehuneko berdina izan zen, eta 2008koan apur bat handiagoa.

23. grafikoa: Lehen Hezkuntza 2005-2008-2009.

Ikastetxera joateko beldurra inkesta egin duten ikasle guztien iritziz




“Ikastetxera joateko beldurra sentitzen duela” dioten ikasleen ehunekoa igo egin da aurreko ikerlanetik hona (2008ko % 30,4tik 2009ko % 33,5era). Gainera, oraindik ikasleen % 3,2k aitortzen du ikastetxera joateko beldurra *“sarritan”* eta *“ia egunero”* sentitzen duela, ehunekoa 2008ko % 3,8tik jaitsi egin bada ere.

b)) Beldurra sentitzeko arrazoiak

Beheko grafikoan ikastetxera joateko beldurraren arrazoiak banaketa azaltzen da, beldurra izaten dutela dioten ikasleen artean. Kontuan izan behar da ikasle bakoitzak beldurra izateko arrazoi bat baino gehiago aipa dezakeela.

**24. grafikoa: Lehen Hezkuntza 2005-2008-2009.
Beldurra sentitzen duten ikasleek emandako arrazoiak*.**




Ikastetxera joateko beldurra “bestelako arrazoiak” direla eta sentitzen duten ikasleen ehunekoan jaitsiera nabarmena ikusi da 2009an. Ikastetxera joateko beldurra sentitzeko gainontzeko arrazoiak ez da aldaketa adierazgarriak izan 2005eko eta 2008ko balioekiko.

Edozein modutan ere, arrazoirik aipatuena ikasgelako lanari, lanak egin ez izanari, notei eta abarrei dagokiena da.

c) Irakasleekiko harremana

Oro har, lagineko ikasleek uste dute irakasleekiko harremana ona dela, eta % 90 inguru ondo tratatua sentitzen da. % 1ek bakarrik uste du irakasleekin duen harremana txarra dela.


25. grafikoa: Lehen Hezkuntza 2005*-2008-2009.
Irakasleekiko harremana inkesta egin duten ikasle guztien iritziz



*2005eko datuak % 100era doitu dira 2008koekin eta 2009koekin konparagarriak izateko.

Ikasleak irakasleekin nola sentitzen diren aztertzen bada, % 84,6k esaten du ondo trataturik sentitzen dela. Ondo trataturik ez sentitzeko eman dituzten arrazoen artean aipatuenak "gehiegi eskatzen didate" eta "begitan hartua naute" dira.

26. grafikoa: Lehen Hezkuntza 2005-2008-2009. Zergatik sentitzen zara horrela irakasleekin? Inkesta egin duten ikasle guztien erantzunak*.




d) Norekin hitz egiten dute biktimek?

27. eta 28. grafikoetan ikus daiteke ikasle multzo batek inork ez dituela zirikatzen erantzun duela. Hori erantzuteko aukera galdera guztietan eman zaie ikasleei, baina galdera batean hori erantzuteak ez ditu behartzen galdera guztietan erantzun bera ematera.

Balio horiek, jakina, adierazle orokorrean aurkeztutakoak baino handiagoak dira, adierazle orokorrak ikasturtearen hasieratik jokoerak “sarritan” eta “ia egunero” gertatzen direla dioten ikasleak kontuan hartzen baititu (jazarpenaren jarraipena bermatzearen), eta erantzun horren kasuan ikasleek emandako informazio zehatza baita.

27. grafikoa: Lehen Hezkuntza 2005-2008-2009.
Norekin hitz egiten dute ikasleek biktima direnean?



Biktimek era guztietako pertsonekin hitz egiten dute; batez ere familiarekin (% 60,4), lagunekin (% 55,5) eta irakasleekin (% 29,5).


Hala eta guztiz ere, ikasleen % 14,9 oraindik zirikatuta sentitzen da eta ez du “inorekin ere” hitz egiten. Kopuru hori kontuan hartzeko modukoa da, % 15en inguruan mantentzen baita. Arreta berezia eskaini beharko litzaieke ikasle horiei, laguntza edo komunikaziorako bideak eskaintzearen bidez, beren isolamendua apurtu ahal izan dezaten.

e) Nork esku hartzen du tratu txarrak gertatzen direnean?

Aldagaien balioek ez dute aldaketa adierazgarririk izan 2008ko ikerlanarekiko.

Ikasleen % 50 inguruk esaten du ez duela inoiz tratu txarrik jasaten. Tratu txar bat edo beste jasaten dutela diotenen artean, gehiengoak esaten du egoera horietan laguntzeko lagun batek esku hartzen duela. Ikasleen % 9k esaten du inork ez duela esku hartzen.


28. grafikoa: Lehen Hezkuntza 2005-2008-2009.
Nork esku hartzen du tratu txarrak gertatzen direnean?*



f) Irakasleen esku-hartzea


Irakasleek tratu txarren aurrean egiten dutenari dagokionez, 2009ko ikasleen pertzepzioa ez da ia aldatu. Tratu txarrak mozteko esku hartzen dutela dioten ikasleen ehunekoa mantendu egin da, baina erasotzaileak zigortzen dituztela dioten ikasleen ehunekoa jaitsi da.

29. grafikoa: Lehen Hezkuntza 2005-2008-2009. Zer egiten dute irakasleek tratu txarrak gertatzen direnean? Inkesta egin duten ikasle guztien erantzunak.



Datuak biktima sentitzen direla edo ez direla sentitzen dioten ikasleen ikuspuntutik aztertzen baditugu, biktimek gehiagotan erantzun dute tratu txarrak gertatzen direnean "ez dakitela irakasleek zer egiten duten". "Ez dute ezer egiten ez direlako enteratzen" erantzun dutenen ehunekoa jaitsi egin da.

30. grafikoa: Lehen Hezkuntza 2005-2008-2009. Zer egiten dute irakasleek tratu txarrak gertatzen direnean? Biktima direla dioten ikasleen erantzunak.



3.3.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako emaitzak

3.3.- Ikaskideen arteko tratu txarrak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan

3.3.1.- Inkestaren lagina

- Ikasleak: 3.123
- Ikastetxeak: 80
- Aplikazioa: 2009ko otsaila

Irakasmaila	Ikasleak	%
DBH 1	829	26,6
DBH 2	760	24,3
DBH 3	801	25,6
DBH 4	733	23,5
GUZTIRA	3123	100

- Lagina EUSTATEk egin du konglomeratuen arabera (ikastetxeak). Hautaketa sistematikoa izan zen, eta aldagai hauen arabera ordenatua: lurraldea, tamaina eta hezkuntza-sarea.
- Ikasle kopurua ikastetxeko 10 izan da gutxienez eta 40 gehienez.
- Lagin akatsa 0,04 da.
- Ikastetxe bakoitzeko 40 ikasleak (irakasmaila bakoitzeko 10) zoriz hautatu dira informatika programa baten bidez.

3.3.2.- Tratu txarrak lekukoen, biktimen eta erasotzaileen ikuspuntutatik


Jarraian ikastetxeetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1., 2., 3. eta 4. mailako ikasleen artean ikasturtearen hasieratik behin eta berriro gertatzen diren tratu txarretako jokoerak aztertzen dira.

Tratu txarrak lekukoen ikuspuntutik

Ahozko tratu txarretako jokoerak dira gehien behatu direnak, eta bigarren lekuan gizarte-baztertzeari dagozkionak. % 7k esaten du "jotzea" jokoeraren lekuko izan dela.

Ciberbullyingak ("telefono mugikorraz egoera laidogarrietan grabatzea" eta "mugikorraz, txatez edo posta elektronikoz mezuak bidaltzea") % 2ko presentzia du. Interesgarria izango da hurrengo ikerlanetan zer nolako bilakaera duen ikustea. Lekukoek ciberbullying jokoera horiek sarriago ikusi dituzte "gauzak egitera behartzea" eta "armez mehatxatzea" jokoerak baino.

**31. grafikoa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 2009.
Tratu txarretako jokoerak LEKUKOen ikuspuntutik***




Tratu txarren bilakaera lekuko en ikuspuntutik

Tratu txarren lekuko izan diren ikasleen ehunekoak igo egin da 2008ko ikerlanarekiko “gauzak ezkutatzea”, “kasurik ez egitea (paso egitea)”, “parte hartzen ez uztea”, “gauzak lapurtzea” eta “sexualki jazartzea” jokoeretan, eta ez du aldaketarik izan gainerako jokoeretan. “Sexualki jazartzea” jokoeraren kasuan kontuan izan behar da, igo den arren, oso ehuneko apalak direla. Jokaera guztietako ehunekoak dira 2005ekoak baino apalagoak.

Ahozko tratu txarren kasuan, ehunekoak ez dira aldatu 2008ko ikerlanarekiko, eta 2005ekoak baino askoz apalagoak dira.

32. grafikoa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.
Tratu txarren bilakaera 2005-2008-2009 LEKUKOen ikuspuntutik*




Tratu txarrak biktimen ikuspuntutik

Biktimen esanetan, ahozko tratu txarrei dagozkien jokiaerak dira sarrienak. Haien artean *“izengoitiak jartzen dizkirate”* eta *“niri buruz txarto hitz egiten dute”* dira sarrienak, eta ikasleen % 4,4k eta % 3,8k jasaten ditu hurrenez hurren.

Ikasleen % 1ek esaten du sexu jazarpenaren biktima izan dela. Ikasleen % 0,5 inguruk esaten du *ciberbullying* bi jokiaeretako bat jasan duela”.

Biktimen pertzepzioa bat dator lekuko pertzepzioarekin jokiaerarik sarrienei dagokienez (ikus 31. grafikoa).

**33. grafikoa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 2009.
Tratu txarretako jokiaerak BIKTIMEN ikuspuntutik***




Tratu txarren bilakaera biktimen ikuspuntutik

2008ko datuekin konparaturik, jokaera sarrien artean, ahozko tratu txarrei, gizarte-baztertzeari eta erasotzeari dagozkien jokaeren ehunekoak igo egin dira, “*gauzak apurtzen dizkirate*” jokaeraren kasuan izan ezik.

Hala eta guztiz ere, igoera adierazgarria izan duen jokaera bakarra “*gauzak lapurtzen dizkirate*” jokaera izan da.

34. grafikoa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. 2005-2008-2009.
Tratu txarren bilakaera BIKTIMEN ikuspuntutik*




Tratu txarrak erasotzailearen ikuspuntutik

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan maizen gertatzen diren tratu txarrak, erasotzaileen ikuspuntutik, ahozko tratu txarrak eta gizarte-baztertea dira oraingo ikerlanean ere. Ehunekorik altuena duen jokaera (% 7) “ez diot kasurik egiten (paso egiten dut)” jokaera da. Dirudienez, erasotzaileak era horretako jokaerez gehiago ohartzen dira.

Jokaera horietako batzuetan beren burua erasotzailetzat duten ikasleen ehunekoak % 7 da gehienez. Tratu txar fisikoak eta gauzei erasotzea, erasotzaileen iritziz, % 1 inguruan daude; *ciberbullyinga*, berriz, bat dator biktimek aipatutako ehunekoarekin (% 0,6).


**35. grafikoa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 2009.
Tratu txarretako jokaerak ERASOTZAILEen ikuspuntutik***



Tratu txarren bilakaera erasotzaileen ikuspuntutik

2009ko ikerlanaren emaitzak aurreko ikerlanen emaitzekin konparatzen baditugu, ehunekoak jokaera guztietan igo dira. Ehuneko apalak badira ere, “ez diot parte hartzen uzten”, “ez diot kasurik egiten (paso egiten dut)” eta “gauzak lapurtzen dizkiot” jokaeretan adierazgarriak dira 2008ko ikerlanarekiko. Hurrengo ikerlanetan zer nolako bilakaera duten ikusi beharko da eta biktimek, beren esanetan, jasaten dituztenekin konparatu beharko dira, erasotzaileek beren jokaeren kontzientzia handiagoa duten eta horiek kontatzeko gaitasun handiagoa duten ebaluatu ahal izateko, ala, aitzitik, ikaskideei tratu txarrak maizago ematen dizkieten.

36. grafikoa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. 2005-2008-2009.
Tratu txarren bilakaera ERASOTZAILEn ikuspuntutik*




Evolución del maltrato según los testigos, las víctimas y los agresores-as

Lehen Hezkuntzan gertatzen den bezala, tratu txarren lekuko izan diren ikasleen ehunekoak biktimen eta erasotzaileen ehunekoak baino handiagoa da, gertaera bat pertsona askok batera ikus dezaketelako.

Biktimei eta erasotzaileei dagozkien balioak antzerakoak dira, “kasurik ez egitea (paso egitea)” jokaeraren kasuan izan ezik, jokaera hori erasotzaileek hein handiagotan aitortzen baitute.


37. grafikoa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 2009.
Tratu txarrak lekukoen, biktimen eta erasotzaileen ikuspuntuetatik*



2009an tratu txarretako egoeren lekuko izan diren ikasleen ehunekoak “gauzak ezkutatzea”, “kasurik ez egitea (paso egitea)”, “parte hartzen ez uztea”, “gauzak lapurtzea” eta “sexualki jazartzea” jokaeretan igo egin da 2008ko ikerlanarekiko. Hala ere, 2005eko ehunekoak baino apalagoa da.

Biktimek eta erasotzaileek antzerako ehunekoak dituzte hiru ikerlanetan. Deigarrien gertatzen den jokaera “kasurik ez egitea (paso egitea)” da, erasotzaileen kasuan biktimen kasuan baino altuagoa delako eta aurreko ikerlanekiko igotzen ari delako.

38. grafikoa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 2005-2008-2009.
Ikaskideen arteko tratu txarren bilakaera lekukoan, biktimen eta erasotzaileen ikuspuntuetatik*



3.3.3.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan tratu txarrak ematen dituzten ikasleen jatorria eta sexua eta tratu txarrak non gertatzen diren biktimen esanetan


Behean aurkezten diren hiru tauletan ez da 2005eko daturik ageri, ikasleei atal honetan egin zitzaizkien galderak eta 2008an eta 2009an egin zitzaizkienak ez baitatuz bat. Datu horiek, beraz, ez dira estatistikoki konparagarriak.

Los porcentajes expresan el número de conductas de maltrato que las víctimas dicen haber sufrido por parte de sus compañeros y compañeras teniendo en cuenta el curso de procedencia, el sexo y en el lugar. De estos porcentajes está excluido el alumnado que dice no haber sufrido ninguna conducta de maltrato.

a) Nongoak dira tratu txarren emaileak? (tratu txarretako jokaerak biktimen esanetan)

Biktimek jasaten dituzten tratu txarretako jokaera gehienak (% 48,2) taldekideek ematen dizkiete. Irakasmaila bereko beste talde batekoek, berriz, % 23,5 ematen dizkiete, eta goragoko irakasmaila batekoek % 13,8. Emaiza horiek Lehen Hezkuntzako antzerakoak dira.

	Jokaeren %	
	2008	2009
Nire taldekoak	46,5	48,2
Nire irakasmailakoak, baina ez nire taldekoak	17,0	19,5
Goragoko irakasmaila batekoak	16,2	13,8
Ikastetxetik kanpoko pertsonak	12,1	12,1
Beheragoko irakasmaila batekoak	7,6	6,4




OHARRA: Galderen formulazio ezberdina dela eta, datuak ezin dira zuzenki konparatu 2005ekoekin.

b) Non gertatzen dira tratu txarrak? (tratu txarretako jokaerak biktimen esanetan)

Tratu txarretako jokaeren heren bat ikasgeletan gertatzen dira, Lehen Hezkuntzan ez bezala, etapa horretan gehienetan jolastokian gertatzen baitira. Jokaera horiek batez ere irakasleak ikasgelaz aldatzen direnean gertatzen direla pentsa daiteke. Tratu txarrak gertatzen direneko lekuak egonkor mantentzen dira 2008ko ikerlanarekiko.

	Jokaeren %	
	2008	2009
Ikasgelan	33,8	35,1
Jolastokian	20,6	20,4
Edozein lekutan	16,3	15,1
Ikastetxeko ikasleek, ikastetxetik kanpo	11,3	11,1
Korridorean	8,5	8,8
Jantokian	5,0	5,2
Komunetan	4,6	4,3




OHARRA: Galderen formulazio ezberdina dela eta, datuak ezin dira zuzenki konparatu 2005ekoekin.

c) Nortzuk dira tratu txarren emaileak? (tratu txarretako jokaerak biktimen esanetan)

Tratu txarren emaileei dagokienez, erantzunik hautatuena (% 44,3) “mutil batzuk” izan da, eta ondoren “mutil bat” (% 20,3) eta “neskak eta mutilak” (% 16,9). Lehen Hezkuntzako ikerlanak antzerako emaitzak izan ditu.

	Jokaeren %	
	2008	2009
Mutil batzuk	42,9	44,3
Mutil bat	22,1	20,3
Neskak eta mutilak	16,4	16,9
Neska batzuk	11,5	10,2
Neska bat	7,1	8,3



OHARRA: Galderen formulazio ezberdina dela eta, ezin dira zuzenki konparatu 2005ekoekin.

3.3.4.- Biktima eta eskola ingurunea

Atal honetan aurkezten diren datuak honako honi buruzkoak dira: ikasleak ikastetxeak nola tratatuta sentitzen diren eta zergatik, irakasleekin nolako harremana duten, tratu txarrak jasaten dituztenean norekin hitz egiten duten, eta kasu horietan nork esku hartzen duen eta nola.


40., 43., 44. eta 45. grafikoetan aurkezten diren ehunekoen batura 100 baino gehiago da, ikasleek galdera horietan erantzun bat baino gehiago hautatu ahal izan dutelako.

a) Ikastetxera joateko beldurra

2009an ikastetxera joateko beldurrik inoiz ez dutela izaten dioten ikasleen ehunekoa apur bat jaitsi da 2008ko ehunekoarekiko, baina 2005ekoa baino apur bat handiagoa da.

Kontuan hartzeko datua ikastetxera joateko beldurra “sarritan” edo “ia egunero” izaten dutela dioten ikasleen ehunekoa da (% 2,5).


39. grafikoa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 2005-2008-2009.
Ikastetxera joateko beldurra inkesta egin duten ikasle guztien iritziz



b) Beldurra sentitzeko arrazoiak

Aipatutako arrazoiaren artean ikastetxeko lanei dagozkienak azpimarratu beharko lirateke, ikasleen erdiak aipatzen dituelako. Ehuneko handi batek esan du beldurraren eragileak *“ikaskide bat edo batzuk”* (% 32,6) eta zehaztu gabeko *“bestelako arrazoiak”* (% 24,9) direla.


**40. grafikoa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 2005-2008-2009.
Beldurra sentitzen duten ikasleek emandako arrazoiak***



c) Irakasleekiko harremana

Irakasleekiko harremanari dagokionez, ehunekoak ia berdin mantentzen dira aurreko ikerlanetako erantzunekiko.


**41. grafikoa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 2005*-2008-2009.
Irakasleekiko harremana inkesta egin duten ikasle guztien iritziz**



*2005eko datuak % 100era doitu dira 2008koekin eta 2009koekin konparagarriak izateko.

Ikasleen % 68,8k esaten du irakasleek ondo trataturik sentitzen dela; hala ere, kontuan hartu beharko litzateke ikasleen % 6,6k noizbait irakasleek eraso edo irrigarri utzi dituela esaten duela. Aukera guztiak igo dira apur bat, "*ongi tratatzen naute*" jokaeran izan ezik, jaitsiera adierazgarria izan baitu. Oso garrantzitsua da joera hori hurrengo ikerlanetan mantentzen den ala ez ikustea.

42. grafikoa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 2005-2008-2009. Zergatik sentitzen zara horrela irakasleekin? Inkesta egin duten ikasle guztien erantzunak*




d) Norekin hitz egiten dute biktimek?

Grafiko honetan eta hurrengoan inork ez dituela zirikatzen dioten ikasleen ehunekoak ezberdinak direla ikus daiteke, hori erantzuteko aukera galdera guztietan ematen baitzaie ikasleei, baina galdera batean hori erantzuteak galdera guztietan erantzun bera ematera behartu gabe.

Balio horiek, jakina, adierazle orokorrean aurkeztutakoak baino handiagoak dira, adierazle orokorrak ikasturtearen hasieratik jokoerak “sarritan” eta “ia egunero” gertatzen direla dioten ikasleak kontuan hartzen baititu (jazarpenaren jarraipena bermatzearen), eta erantzun horren kasuan ikasleek emandako informazio zehatza baita.

43. grafikoa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 2005-2008-2009. Norekin hitz egiten dute ikasleek biktima direnean?*



Grafiko honetan eta hurrengoan ikasleen % 70 inguruk esaten du ez duela inoiz jasan tratu txarretako jokaerarik. Gainerakoan tratu txarrak inoiz edo behin eta sarritan jasaten dituztela dioten ikasleak sartzen dira.

Lagunekin, familiarekin eta irakasleekin hitz egiten duten ikasleen ehunekoak mantendu egin dira 2008ko ikerlanarekiko.

Aipatzeko modukoa da tratu txarrak jasaten dituztenean inorekin ere hitz egiten ez duten biktimen ehunekoa, % 18,9ra igo baita (2008ko balioaren antzekoa, baina 2005ekoa baino 5,2 puntu handiagoa). Ehuneko hori Lehen Hezkuntzako (% 14,9) baino handiagoa da. Beraz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan tratu txarrak jasaten dituzten ikasleek isolamendu eta bakartasun arrisku handiagoa dutela ondoriozta daiteke.

Familia bigarren lekuan geratu da eta irakasleak laugarren lekuan. Beraz, badirudi ikasle horientzat pertsona helduek laguntzeko berme edo konfiantza gutxiago eskaintzen dutela lagunak baino (lehenengo lekuan, % 65,6).


e) Nork esku hartzen du tratu txarrak gertatzen direnean?

Inork ez dituela zirikatzen dioten ikasleen ehunekoa (% 68,4) 2008koaren antzerakoa da (% 69,7) eta 2005ekoa (% 60,5) baino handiagoa. Lehen Hezkuntzan, berriz, ez du aldaketa handirik izan.

Aldaketarik nabarmenena inork ez duela esku hartzen dioten ikasleen ehunekoan gertatu da, etengabe handitzen baitoa (% 12,4 2005ean, % 13,1 2008an eta % 14,6 2009an), baina igoera adierazgarririk gabe.

44. grafikoa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 2005-2008-2009.


Nork esku hartzen du tratu txarrak gertatzen direnean?*



f) Irakasleen esku-hartzea

Atal guztietako ehunekoak 2005ean eta 2008an lortutakoen antzekoak dira. Hala ere, aipatu behar da “ez dakit irakasleek zer egiten duten” eta “ez dute ezer egiten, ez direlako enteratzen” (% 23,4) erantzun duten ikasleen ehunekoak igo egin direla, eta “batzuek mozteko parte hartzen dute” (% 23,0) eta “ikasle erasotzaileak zigortzen dituzte” (% 21,4) erantzun dutenen ehunekoak jaitsi egin direla.


45. grafikoa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 2005-2008-2009. Zer egiten dute irakasleek tratu txarrak gertatzen direnean? Inkesta egin duten ikasle guztien erantzunak



Datuak jazarpenaren biktima sentitzen direla dioten ikasleen ikuspuntutik aztertzen baditugu, erantzunik hautatuena “*irakasleek ez dute ezer egiten, ez direlako enteratzen*” eta bigarren lekuan “*ez dakit zer egiten duten*”. Bi aldagai horiek portaera bera izan zuten 2008ko ikerlanean.

2009ko ikerlanean tratu txarren biktima sentitzen direla eta ez direla sentitzen dioten ikasleen erantzunen artean, bitan bakarrik ikusten dira alde adierazgarriak: “*ez dakit zer egiten duten*”, hautatuagoa biktima sentitzen ez direnen artean, eta “*irakasleek ez dute ezer egiten, ez direlako enteratzen*”, hautatuagoa biktima sentitzen direnen artean.

46. grafikoa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 2005-2008-2009.
Zer egiten dute irakasleek tratu txarrak gertatzen direnean?
Biktima direla dioten ikasleen erantzunak




3.4.- Zuzendaritza taldeen erantzunen emaitzak

3.4.1.- Zer gertatzen da ikastetxeetan? ²

Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako zuzendaritza taldeen iritziz, aztertutako hamahiru jokaeretako hirutan bakarrik (*“iraintzen dute”, “gauzak ezkututzen dizkiote”* eta *“jotzen dute”*) igo dira 2009ko ehunekoak 2008koekiko. Hala ere, 2005ekoak baino apalagoak dira.


**47a grafikoa: Lehen Hezkuntza 2005-2008-2009.
Tratu txarretako jokaerak ikastetxeetan***



² Kontuan izan behar da zuzendaritza taldeen iritzia aztertzen duen atal honetako emaitzak N (ikastetxe kopuru) ezberdinetan oinarritzen direla (83 LHn, 80, DBHn).

Hiru ikerlanetan parte hartu duten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako zuzendaritza taldeen iritziz, aztertutako 15 jokaeretatik *“berari buruz txarto hitz egiten dute”* jokaeraren ehunekoak igoera adierazgarria izan du 2008ko ikerlanarekiko, eta guztien ehunekoak 2005eko ehunekoak baino apalagoak edo berdinak dira.

**47b grafikoa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 2005-2008-2009.
Tratu txarretako jokaerak ikastetxeetan***




2009ko ikerlanean, ikastetxeetako zuzendaritza taldeek eta ikasleek iritzi berdina dute bi alderditan: bata, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan maizen gertatzen diren tratu txarrak ahozko tratu txarrak direla; eta bestea, tratu txarretako jokaera batzuen ehunekoak 2008ko ikerlanarekiko igo egin direla, baina 2005eko ehunekoak baino apalagoak edo berdinak direla.

Aipatu behar da tratu txarretako jokaera jakin batzuk zuzendaritza taldeen iritziz sarritan ikusten ez badira ere, ikasleen iritziz bai gertatzen direla, baina ez oso maiz. Jokaerak honako hauek dira: *“gauzak apurtzea”*, *“gauzak lapurtzea”*, *“zerbait egitera mehatxuz behartzea”*, *“mugikorraz egoera laidogarrietan grabatzea”*, *“armez mehatxatzea”* eta *“sexualki jazartzea”*.


3.4.2.- Prebentzio ekintzak

Lehen Hezkuntzan “bizikidetzari buruzko programetan parte hartzearen” inguruko ekintzak areagotu egin dira 2008ko ikerlanarekiko. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan honako ekintza hauek areagotu dira: “irakasleen partehartzea ikastetxearen antolamenduan”, “barne araudia garatzea” eta batez ere “metodologia aktiboagoa sustatzea”.

48a grafikoa: Lehen Hezkuntza. 2005-2008-2009.
Prebentzio ekintzak tratu txarretako jokaerei aurre egiteko




48b grafikoa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. 2005-2008-2009.
Prebentzio ekintzak tratu txarretako jokaerei aurre egiteko



3.4.3.- Nola esku hartzen dute ikastetxeek?


Oro har, bai Lehen Hezkuntza bai Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan tratu txarrei aurre egiteko esku hartzerik sarrienak *“inplikatuarekin hitz egitea”*, *“famiolarekin hitz egitea”* eta *“klasean hitz egitea”* dira.

49a grafikoa: Lehen Hezkuntza. 2005-2008-2009.
Esku hartzeak tratu txarretako jokoerei aurre egiteko*³



³ ISEI-IVEIko Web orrialdean, "Tratu txarra berdinen artean: *Bullyinga* Euskadin (DBH)" (2004) ikerketaren argitalpenean, *“Inplikatuarekin bakarka hitz egiten da”* aukerari dagokion datuak (%75,3) "beti" erantzuna adierazten du soilik, "sarritan" eta "beti" adierazi beharren.

49b grafikoa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. 2005-2008-2009.
Esku hartzeak tratu txarretako jokaerei aurre egiteko*



Ikaskideen arteko tratu txarrei aurre egiteko irakasleen esku hartzeak mantendu egiten dira aldaketa adierazgarririk gabe Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ekintza guztietan.

Ez dago aldaketa adierazgarririk aurreko bi ikerlanekiko bi etapetan.

4.- Ondorio orokorrak

4.1.- Nolako ondorioak atera daitezke?

✓ Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikaslerik gehienek beren ikaskideengandik tratu txarrik ez dutela jasaten esaten dute, eta esperientzia positiboak izaten dituzte beren eskolatzeko prozesuan. Hala eta guztiz ere, tratu txarrekiko tolerantzia “zero” izan behar dela kontuan izanik, oso garrantzitsua da egoera horiek sufritzen dituzten ikasleen ehunekoa aintzat hartzea.

- Tratu txarren adierazle orokorra 2009an %16,8koa da Lehen Hezkuntzan eta %11,6koa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

✓ Tratu txar baten edo besteren biktima izan direla dioten ikasleen ehunekoa igo egin da 2008ko ehunekoarekiko, baina 2005eko ikerlanekoa baino apalagoa da. Gorabehera horiek ez dira estatistikoki adierazgarriak.

✓ Ahozko tratu txarrak (irainak, izengoitiak...) dira bi hezkuntza etapa horietan maizen gertatzen direnak. Bestelako tratu txarrak (gizarte-baztertzea, biktimaren gauzei erasotzea eta tratu txar fisikoak) ez dira hain sarri gertatzen.

✓ Tratu txarrak jasaten dituztela dioten mutilen ehunekoa (% 18,5) neskena (% 14,9) baino handixeagoa da Lehen Hezkuntzan. Hala ere, joera lehenengoz aldatu da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, tratu txarrak jasaten dituztela dioten nesken ehunekoa (% 11,8) mutilena (% 11,4) baino handiagoa baita.

- Dirudenez, 2008ko ikerlanarekiko nesken eta mutilen ehunekoak igo egin dira (2 puntu inguru) Lehen Hezkuntzan eta nesken ehunekoa (1,3 puntu inguru) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan; mutilen ehunekoa jaitsi egin da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (1,3 puntu inguru). Dena den, aldeak ez dira estatistikoki adierazgarriak.

✓ Tratu txarren ehunekorik handiena Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleen artean gertatu da eta apalena Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailan. Jaitsierarik nabarmenenak Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetan gertatu dira (4,3 puntu) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailetan (3,4 puntu). Jaitsiera adierazgarriak dira bi kasuetan.

- 2005ean Lehen Hezkuntzako 5. mailako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako ehunekoaren arteko aldea 10 puntukoa izan zen eta 2008an 8 puntukoa. 2009an 11,3 puntukoa izan da.

✓ **Tratu txarren gertalekua aldatu egiten da eskolatzeko prozesua aurrera joan ahala: Lehen Hezkuntzan ikastetxeko jolastokian gertatzen dira gehienbat eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikasgelan. 2005ean eta 2008an antzerako ondorioak atera ziren.**

✓ **Tratu txarrak batez ere erasotako biktimaren taldeko “*mutil batzuek*” ematen dituzte aztertutako bi etapetan.**

✓ **Tratu txarrak jasaten dituztela dioten ikasle gehienek lagunekin eta familiarekin komentatzen dituzte tratu txarrak. Hala ere, tratu txarrak inorekin komentatzen ez dituzten ikasleen ehunekoak kezagarria da (% 14,9 Lehen Hezkuntzan eta % 18,9 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan).**

- Tratu txarrak jasaten dituzten ikasleen iritziz, lagunak eta familia dira, hurrenkera horretan, tratu txarren aurrean parte gehien hartzen dutenak, bai Lehen Hezkuntzan bai Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

✓ **Zuzendaritza taldeen esanetan, ikastetxe gehienek ikasgela eta ikastetxe mailako neurriak hartzen dituzte, prebentzio neurriak bereziki, ikaskideen arteko tratu txarretako egoerarik gerta ez dadin.**

- Ikastetxeetako zuzendaritza taldeen eta ikasleen iritziz, behatutako tratu txarretako jokaera guztiak areagotu egin dira 2008ko ikerlanarekiko, eta 2005eko balioekiko berdin edo apur bat baxuago mantentzen dira.
- Ikastetxeetan gauzatzen diren prebentzio ekintzen ehunekoak % 70etik % 97ra doaz. Batez ere tutoretza lanari, irakasleen parte hartzeari eta inplikazioari dagozkio bi etapetan. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ikastetxearen barne araudia garatzeari dagozkio.
- Hala eta guztiz ere, ikasleen ehuneko handi batek ez ditu argi ikusten esku hartze horiek: 2009an “*ez dakit zer egiten duten*” eta “*ez dute ezer egiten ez direlako enteratzen*” erantzunen ehuneko batura % 39,3 izan da Lehen Hezkuntzan eta % 55,7 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.